

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zerga ordenantzen eta prezio publikoen ordenantzaren behin-behineko onarpena

Udalbatzak, 2019ko urriaren 10ko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea honako zerga ordenantza eta prezio publiko hauek aldatzeari 2020rako:

- Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga Arautzen duen Zerga Ordenantza
- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza
- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza
- Zerbitzuen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza.
- Jabetza Publikoaren Erabilera Pribatuagatik edo Aprobetxamendu Bereziagatik Ordaindu Beharreko Tasak arautzen dituen Ordenantza
- Zerbitzuak eman eta Jarduerak egiteagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza

Espedienteak jendaurrean jartzen dira hogeita hamar egunez iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta erabakia behin betiko onartutzat joko da, baldin eta ez bada aurkezten erreklamaziorik.

Murgia, 2019ko urriaren 11a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA